



## **ELKARERAGINGARRITASUNAREN ONDORIOZ EGIN BEHAR DIREN BIZIKIDETZA ZIURTAGIRIEN GAINEKO ETA BIZTANLEEN UDAL ERROLDAKO DATUEN TRATAMENDUAREN GAINEKO IRIZPENA**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** [...] Udalak helarazitako idazki bat jaso dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, eta goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatu du.

Hona idazkiak zioena, besteak beste:

*“Bizikidetza bolante edo ziurtagiriei dagokionean, eskatzailea ez den etxe horretan bizi diren gainontzeko pertsonen baimena eskatzea noiz litzateke beharrezkoa? Bizikidetza ziurtagiri edo bolantea eskatzen den bakoitzean? Edota data batean emandako baimenak balio dezake epealdi batetarako?”*

*Interoperabilidadeari dagokionean, hau da, udala ez den beste erakunde batek udaleko erroldako datuak hartzen dituenen. Lehenik ulertzen dugu baimena lortzearen betebeharra eta ardura erakunde eskatzailearena dela. Kasu guztietan du erakunde honek baimena eskatzeko betebeharra edo bere eskuduntzak gauzatzeko beharrezkoa dituen datuak direnez kasuren batetan betebeharrak honetatik salbuetsita geratuko litzateke? Interoperabilidade edo elkareraginginkortasunari dagokionez beste zalantza bat ere badugu, bizikidetza bolantei dagokienean eskatzailearen baimenaz gain beste etxekideen baimena ere eskuratu beharko al luke? Kasu guztietan edo salbuespenak daude?”*

**BIGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

### **KONTUAN HARTZEKOAK**

#### **I**

Kontsultan egin dituzten galderak batez ere biztanleen udal erroldako datu tratamenduei buruzkoak dira, eta bizikidetza ziurtagiriekin eta administrazio publikoetan elkareragingarritasuna bideratzeko moduarekin lotuta daude.



Udal errolda udalerri bateko biztanleak jasotzen dituen administrazio erregistro bat da, eta bertako datuak udalerrian bizilekua izatearen eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Udal erroldak datu pertsonalak dituen, datu babesaren esparrutik begiratuta, errolda Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) menpe dago guztiz.

Udal erroldatik ateratzen diren bizikidetza ziurtagiriek datu pertsonalak dituzte, eskatzailearenak eta etxebizitza berean bizi diren gainontzekoenak. Beraz, bizikidetza ziurtagiria egitea eta ematea datu pertsonalak tratatzea edo erabiltzea da; eta interesduna ez den gainontzeko pertsonen kasuan, horien datuak laga egiten dira. Eta DBLOren 3 i) artikulua datuak lagatzea zera dela dio: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*.

Datu-lagatzearen gaineko erregimena DBLOren 11. artikuluan dago araututa, eta 11. artikuluan 1. idatz-zatiak dio adostasuna behar dela:

*“1.- Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legítimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”*.

Horren arabera, esan behar da, eskatzaileaz gain, etxebizitza berean bizi diren gainontzeko pertsona guztien adostasuna (baimena) behar dela, denen datuak agertzen direlako ziurtagirian. Udalei udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien Estatistika Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumen Koordinazioko zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpenak ere horixe dio. Ebazpenaren 8.1 artikulua honakoa xedatzen du:

*“Era berean, etxebizitza berean inskribatutako pertsona guztien bizikidetza txartela edo ziurtagiriak egiteko, neurriak hartu beharko dira, erroldako datuak lagatzeko interesdunen adostasuna eskuratzea dela-eta, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioena betetzen dela bermatzeko. Adostasunik eskuratu ezean, bizikidetza txartelean edo ziurtagirian bakar-bakarrik jaso ahal izango da inskribatuta dauden pertsona kopuruari buruzko datua”*.

Gainera, ziurtagiria eskatzen den bakoitzean eskatu beharko da adostasuna. Gure ustez ez du balio adostasuna epealdi baterako eskatzea. Eta kontuan eduki behar da DBLOren 3 h) artikulua dioenez, adostasuna interesdunaren berariazko borondate-adierazpena dela, hau da, datu tratamendu baten gainean adierazten du adostasuna, eta helburu jakin baterako.

## II

Horretaz gain, kontsulta-idazkian beste galdera bat ere bazegoen: ea elkareragingarritasun kasuetan ere adostasuna behar den. Herritarrek Zerbitzu Publikoetarako Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak elkareragingarritasuna zer den azaltzeko definizio hau ematen du: *“Informazio-sistemek eta, ondorioz, horietan oinarritzen diren prozedurek daukaten gaitasuna datuak partekatzeko eta euren artean informazioa eta ezagutza trukatzeko”*.

Elkareragingarritasuna funtsezko tresna da Administrazioak lehendik duen dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea bermatzeko (11/2007 Legearen 6.2.b) artikulua aldarrikatutako



eskubidea da). Eskubide horri esker, *“Herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edota datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak besterik adierazi ezean. Nolanahi ere, herritarren eskubide hori mugatuta egon daiteke datu edo agiri horiei aplikatzen zaien legeriaren bidez. Herritarraren adostasuna bitarteko elektronikoz eman eta jaso ahal izango da”*.

Agentziaren irizpenetan askotan esan da 11/2007 Legeak herritarren eskubide bat aitortzen duela eta ez betebehar bat. Beraz, ezin da baztertu herritarrak egiaztatu behar izatea betekizuna kasuz kasu.

Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoaari buruzko otsailaren 22ko 21/2012 Dekretuak garatu du datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Euskal deketuak indar handia jarri du herritarren pribatutasun eskubidean, herritarrek beste administrazio publiko batzuetan lehendik dauden dokumentuak edo datuak ez emateko eskubidea baliatu nahi badute, deketuak esaten duelako adostasunak berariazkoa eta norbanakoarena izan behar duela eta prozedura zehatz bakoitzean adierazi beharko dela: *“Eskubidea banan-banan erabiltzekoa da, hau da, berariaz prozedura bakoitzerako, eta ez du esan nahi interesdunak dena delako organotan izapidetzen dituen prozedura guztietan hala egin daitekeenik, ez dakar horretarako adostasun orokorrik”* (6.3 artikulua).

Beraz, **datuen titularren adostasuna nahikoa izango da, datu transmisioak egin ahal izateko, herritarrek administrazioak lehendik dituen datuak edo dokumentuak ez aurkezteko eskubidea baliatzen dutenean**. Adostasuna eskatzea entitate eskatzailearen ardura izango da.

Herritarren eskubide horrek ez du zer ikusirik administrazio prozedura bat izapidetzeko, prozeduran parte hartzen duten herritarren **datuak egiaztatzeako administrazioak duen ahala**rekin.

**Hala ere, herritarren datuak egiaztatzeako, interesdunaren adostasunik gabe, lege izaera duen arau batek eman beharko dio baimena (lege orokorra edo berezia izan daiteke).**

Auzitegi Gorenaren 2010eko uztailaren 15eko Epaiak aitortu zuen lege batek baino ezin zituela halako datu tratamenduak legitimatu, eta horretarako, baliogabetu egin zuen DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 11. artikulua. Artikulu horrek *“Administrazio publikoei egindako eskaeretako datuak egiaztatzea”* izenburua zuen eta zera xedatzen zuen: *“Baliabide elektronikoen bidez eskaerak egin, eta interesatuek dagoeneko administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaerako datuak jasoko dituen organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak egiazkoak direla egiaztatzeako”*.

Auzitegi Gorenak baliogabetzat jo zuen artikulua, ez zetorrelako bat DBLOren 6., 11. eta 21. artikuluekin eta 11/2007 Legearen 6.2b) eta 9. artikuluekin. Eta baliogabetzeko arrazoia izan zen erregelamendu izaerako arau batek ezin zuela legitimatu datu pertsonalen adostasunik gabeko tratamenduak egitea.



Datuak Babesteko Euskal Bulegoak irizpen askotan aztertu ditu gai horiek, esate baterako, CN12-008 irizpenean. Irizpenaren gaia da zenbait udalen eta Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren artean aurreikusitako informazioa trukatzeari. Hona irizpenean adierazitakoa:

*“(... )Datu tratamenduaren legitimazioa era batekoa izango da hitzarmenean aurreikusitako informazio trukeak egiten badira herritarrek ez ditzaten berriro aurkeztu behar administrazioak lehendik dituen dokumentuak, eta legitimazioa beste era batekoa izango da informazio trukeak egiten badira prestazioen onuradunak izateko eskatzen diren betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko helburuarekin.*

*Lehenengo kasuan, herritarrek erabakitzen badu administrazioak lehendik dituen dokumenturik ez aurkezteko eskubideaz baliatzea, Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Era Elektronikoa Heltzeari buruzko 11/2007 Legearen 6.2.b) artikulua araberak, halakoetan herritarren adostasuna beharko da jarduneko administrazioak berak eman ahal izateko horiek eskuratzeko urratsak. Datu-bilketa hori datu-komunikazioa izango litzateke, baina datu pertsonalen babesaren ikuspuntutik ez du inolako arazorik sortzen, datuen titularraren adostasuna izango duelako.*

*Herritarrek ez badu eskubide hori erabili nahi, eta berak aurkeztu nahi baditu eskatu dizkieten datuak eta agiriak, eta administrazioak uste badu eskatutakoa emateko prozeduraren barruan datu eta agiri horiek egiaztatu egin behar dituela, II. gogoeta juridikoak dioten araberak, halakoetan ukituaren adostasuna edo baimena beharko du, edo, bestela, lege baten gaikuntza edo babesa. Prestazio bat eman eta gero ere ukituaren baimena edo lege gaikuntza beharko da, egiaztatzeko ea onuraduna izateko bete behar diren betekizunak betetzen diren ala ez”.*

Beraz, adostasunik ez badago, legeren baten gaikuntza beharko da datuak lagatzeko, eta, horrek esan nahi du kasuz kasu egin beharko dela azterketa (adibidez, diru-laguntzak arautzen dituzten legeak eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko legeak berariaz ematen dute lege gaikuntza). Baina, ezin dena egin da datua beharrezkoa dela esan eskumen bat baliatzeko, eta hori lege gaikuntzatzat jo. Hala uste dugu behintzat.

Horren ildotik, aipatu behar da apirilaren 28ko 523/2006 Dekretuaren bidez Estaturako sortu zen *“Egoitza Datuak Egiaztatzeko Sistema”* delakoa. Sistema horrek interesdunaren egoitza datuak kontsultatzen uzten du, baina aldezturik interesdunaren adostasuna eskatuta, eta interesdunak berak aurkeztu nahi izanez gero dokumentua, eskubidearen ahal horrek izanik lehentasuna. Egiaztapen sistema horretan sartzeko ezaugarriak, betekizunak eta prozedurak konfiguratzeko dituen abenduaren 27ko PRE/4008/2006 Aginduak berretsi egiten du adostasuna eskatu beharra dagoela.

Guzti horren ondorioz, esan behar da lege gaikuntzarik egon ezean, adostasuna eskatu egin beharko dela, egoitza datuak egiaztatzeko.

Azkenik, kontsulta-idazkiko azken galderari erantzun diogu: ea zer egin behar den bizikidetzari ziurtagiriak elkareragingarritasun operazioetan erabiltzen direnean. Halakoetan, beste kasuetan bezala, adostasuna eskatu behar zaie eskatzaileari eta berarekin bizi diren gainontzeko guztiei ere bai. Salbuespen bat dago: eskatzailearen tutoretzapean daudenak edo guraso-ahalaren menpekoak direnak. Beraz, datuak komunikatzeko moduak ez du eraginik datu pertsonalak babesteko oinarriko eskubidearen funtsezko printzipio honetan: interesdunari adostasuna eskatu beharra.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 28a